



## OHIKO GALDERAK

### **ZERTAN DATZA NEKAZARITZA-JARDUERA ETA KLIMA-ALDAKETARI BURUZKO GIPUZKOAKO HERRITARREN BATZARRA?**

Gipuzkoako Foru Aldundiak, Arantzazulab eta TMeLab berrikuntza laborategiekin batera sustatutako prozesu aitzindaria eta berritzailea da, herritarrak nekazaritza-jarduera eta klima-aldaketa gisako gai publiko garrantzitsuen gaineko deliberazioan parte hartzea helburu duena.

### **ZER DA HERRITARREN BATZAR BAT?**

Herritarrak politika publikoen erabakietan inplikatzeko modu bat da eta herrialde askotan erabiltzen ari da. Batzar honetan Gipuzkoako biztanleriaren lagin deskriptiboa osatzen duten ausaz aukeratutako pertsona talde bat bilduko da, proposatzen den ondorengo galderari buruz deliberatzeko eta gomendioak proposatzeko:

**Nola bermatu dezakegu Gipuzkoan nekazal-jarduera klima-larrialdiari aurre egiteko?**

### **ZERTARAKO AKTIBATZEN DA BATZAR HAU?**

Gipuzkoako Foru Aldundiak batzar hau bultzatzen du, Batzar Nagusietan ordezkariak duten talde politiko guztien babesarekin, eta Herritarren Batzarretik hainbat gomendio jaso nahi ditu, datozen urteetako nekazaritza-politikaren arloko jarduerak bideratzeko balio dezaten. Foru Aldundiak konpromisoa hartzen du Batzarrak egindako gomendio bakoitzari idatziz eta epe zehatzetan erantzuteko, zehazki: gomendioak argitaratu eta bi hilabetera, sei hilabetera eta hemezortzi hilabetera.

### **ZER DAKAR HERRITARREN BATZARREKO KIDE IZATEAK?**

Parte hartzeak aukera ematen du Gipuzkoako nekazaritza-sektorearen egoera eta klima-krisia bertatik bertara ezagutzeko eta gainerako Batzar kideekin deliberatzeko. Batzarrean parte hartuz gero, protagonistetako bat izango zara, alegia, aditu talde baten aholkularitzarekin Gipuzkoan arazo honi aurre egiteko gomendio sorta bat egingo duen pertsonetako bat izango zara. Horretarako, programatutako saioretara joateko ardura duzu, eta horietan dinamizatuko den deliberazioan parte hartuko duzu.

### **NOLA IRITSI DA GUTUN HAU NIRE ETXERA?**

Gipuzkoako biztanle guztiek ez dute gutuna jaso. Foru katastroko etxe guztien artean, 15.000 helbide hautatzeko zozketa egin du Aldundiak. Zure etxeko helbidea aukeratua izan den horietako bat da.

### **NORK PARTE HARTU DEZAKE GIPUZKOAKO HERRITARREN BATZARREAN?**

Gutun hau iristen den helbidean bizi den 16 urtetik gorako edozein pertsona borondatez aurkeztu daiteke, horretarako galdetegi bati erantzunez. Galdetegia betetzen duten pertsona guztiekin, bigarren zozketa egingo da. Zozketa Sortition Foundation erakunde independente eta irabazi-asmorik gabekoak egingo du, zozketa hori estratifikazio zehatza erabilita egingo da, eta horrela Gipuzkoako biztanleriaren lagin demografiko eta sozialki deskribatzailea sortuko da.

Bigarren zozketa horren emaitzaren ondorioz, 32 kide titular eta 32 ordezeko aukeratuko dira. Pertsona horiek Herritarren Batzarreko kide boluntario bihurtuko dira, eta posta elektronikoz edo telefonoz jakinaraziko dira.

### **NORK GAINBEGIRATUKO DU HERRITARREN BATZARRA?**

Jarraipen Batzorde bat dago Batzarraren deliberazio-prozesua gainbegiratzeko. Batzar Nagusietako legebiltzar-taldean eta galderarekin zerikusia duten interes-talde nagusien ordezkariak osatzen dute Jarraipen Batzordea. Edukien Batzorde bat ere osatu da, zure esku jarriko den informazioa sortzeaz arduratzen dena. Deliberazioaren diseinua eta herritarren zozketa-zibikoa Ekonomia Lankidetzeta eta Garapenerako Erakundeak (ELGA) baliozkotutako metodologian oinarritzen dira, eta Deliberativa elkarte independenteak gainbegiratzen ditu. Jarraipen Batzordearen eta Eduki Batzordearen osaera jakin nahi baduzu, esteka hauetan irakurri ditzakezu:



<https://www.gipuzkoa.eus/web/herritarrenbatzarra/jarraipenbatzordea>



<https://www.gipuzkoa.eus/web/herritarrenbatzarra/edukienbatzordea>

## ZER BALDINTZA BETE BEHAR DITUT KIDE IZATEKO?

Gutun hau jaso izana, zure helbidean bizi den edozein pertsonari zuzendutako gonbidapena da. Jakin, dena den, helbide bakoitzean pertsona bakarrak eman dezakeela izena eta baldintza hauek bete behar dituela:

- Gutxienez 16 urte izatea eta Gipuzkoan bizitzea.
- Udal, lurralde historiko, autonomia, estatu edo Europa mailan kargu politikoa ez izatea.

## ZER EGIN BEHARKO DUT?

Herritarren Batzarraren bilerak prozesu hauetan esperientzia duten pertsonak bideratu eta dinamizatuko dituzte. Ez duzu pertsona aditua izan behar, ezta gaiari dagokion ezagutza berezirik izan behar ere. Garrantzitsuena Gipuzkoako bizilagun gisa duzun ikuspegia eta esperientzia da.

Saioetara joateko ez zaizu inolako modu berezian janzteko eskatuko, eta jendaurrean ez duzu hitz egin beharko, nahi ez baduzu.

Parte hartu ahal izateko zailtasunak badituzu (aniztasun funtzionala edo irisgarritasun fisikoa, zure ardurapean adingabeak edo adinekoak izatea, Gipuzkoako bi hizkuntza ofizialetako bat ez hitz egitea ezta ulertzea, edo parte hartzeko mugatzailatzat jotzen duzun beste edozein zailtasun), mesedez, jakinarazi iezaguzu, zailtasun hori konpontzeko aukera azter dezagun eta, ahal den neurrian, zure parte-hartzea eraginkorra izan dadin.

## ZEIN HIZKUNTZA ERABILIKO DIRA BATZARREAN?

Batzarraren bilkurak Gipuzkoako Foru Aldundiaren hizkuntza-politikari jarraituz egingo dira. Bi hizkuntza ofizialen erabilerari buruzko araudia betetzen dela zainduko da, euskararen erabilera soziala sustatuz eta Batzarrean parte hartzen duten pertsona guztien ulermena bermatzeko beharrezkoak diren neurriak hartuz. Bigarren zozketaren ondoren, eta partaidetza berrestearekin batera, Batzarreko kideen hizkuntza-ezagutzei buruzko informazioa jasoko da, eta euskara zein gaztelania ulertzen edo hitz egiten ez badituzu, zure behar espezifikoekin bat datorren itzulpen-sistema bat eskaintzen saiatuko gara.

## ONARTZEN BADUT, DIRU-KONPENTSAZIORIK JASOKO DUT NIRE PARTAIDETZAGATIK?

Herritarren Batzarrean parte hartzea ez da derrigorrezkoa, borondatezkoa baizik. Batzarraren parte izatera konprometitzen zarenean, saio guztietara joatea eta horietan parte hartzea onartzen duzu. Horren truke, guztira 444 euroko konpentsazioa jasoko duzu, baldin eta SAIO GUZTIETARA JOATEN BAZARA. Horrez gain, saioetako joan-etorrietako gastuak eta saioetako otorduak ere sartuko dira.

## NOIZ ETA NOLA ONAR DEZAKET BATZAR-KIDE IZATEA?

**Izena emateko epea urriaren 17an amaituko da (egun hori barne).** Zure erantzuna baiezkoa bada, Herritarren Batzarreko boluntario eta kide izan nahi baduzu, **izena emateko bi modu azkar eta erraz daude:**

1) Bete Gipuzkoako Herritarren Batzarreko web orrialdeko izen-emate formularioa



[www.gipuzkoa.eus/eu/web/herritarrenbatzarra/zozketan-tokatu-zait](http://www.gipuzkoa.eus/eu/web/herritarrenbatzarra/zozketan-tokatu-zait)

2) Izena eman telefonoz hurrengo telefono zenbakira deituta, 943426920. Ordutegia: 9:00 – 18:00

## AURREIKUSITAKO 4 SAIOETAN PARTE HARTU AHAL IZANGO DUDAN ZIUR EZ BANAIZ, IZENA EMAN DEZAKET?

Oso garrantzitsua da programatutako saio guztietara joatea eta saio hauetan parte hartzeko konpromisoa hartzea. Horregatik, Batzarreko kide gisa zure burua aurkeztu aurretik, saio guztietan parte hartzeko aukera baieztatzea eskatzen dizugu.

## SAIOEN EGUTEGIA:

### Lehen saioa:

- Azaroak 4, ostirala GIPUZKOAKO HERRI BATEAN 18:00etatik 21:00etara.
- Azaroak 5, larunbata GIPUZKOAKO HERRI BATEAN 10:00etatik 18:00etara.

### Bigarren saioa:

- Azaroak 25, ostirala DONOSTIAN 18:00etatik 21:00etara.
- Azaroak 26, larunbata DONOSTIAN 10:00etatik 18:00etara.

### Hirugarren saioa:

- Abenduak 16, ostirala BERGARAN 18:00etatik 21:00etara.
- Abenduak 17, larunbata BERGARAN 10:00etatik 18:00etara.

### Laugarren saioa:

- Urtarrilak 13, ostirala DONOSTIAN 18:00etatik 21:00etara.
- Urtarrilak 14, larunbata DONOSTIAN 9:00etatik 15:00etara.

Lau saio hauetan parte hartu ezin baduzu, eskertuko genizuke zure helbide berean bizi den eta 16 urte baino gehiago dituen pertsona bat Batzarrean parte hartzera animatzea.

### Itzulera saioa:

Batzararen lau eztabaida-saio horiez gain, 2023ko martxoaren 15ean arratsaldeko seiretan itzulera-saio bat egingo da Gipuzkoako Foru Aldundiarekin. Bilkura horretan, Gipuzkoako Foru Aldundiak bere erantzuna emango du Herritarren Batzarrak egindako gomendioei dagokienez. Ahal izanez gero, azken saio honetan parte hartuko duzulakoan gaude.

### DATUEN BABESA

Zure datuen babesaren irakurri dezakezu esteka honetan:



<https://www.gipuzkoa.eus/web/herritarrenbatzarra/datuenbabesa>

---

## PREGUNTAS ACLARATORIAS

### ¿EN QUÉ CONSISTE LA ASAMBLEA CIUDADANA DE GIPUZKOA SOBRE ACTIVIDAD AGRARIA Y CAMBIO CLIMÁTICO?

Es un proceso pionero e innovador que se impulsa desde la Diputación Foral de Gipuzkoa, junto con los laboratorios de innovación Arantzazulab y TMeLab, con el objetivo de involucrar a la ciudadanía en la deliberación de asuntos públicos de relieve como son la actividad agraria y el cambio climático.

### ¿QUÉ ES UNA ASAMBLEA CIUDADANA?

Es una forma de asociar la ciudadanía a la toma de decisiones de políticas públicas que se está empleando en muchos países. Esta Asamblea reunirá a un grupo de personas seleccionadas aleatoriamente que conforman una muestra descriptiva de la población de Gipuzkoa, para deliberar y llegar a recomendaciones sobre la cuestión que se plantea: **¿Cómo podemos garantizar la actividad agraria de Gipuzkoa para hacer frente a la emergencia climática?**

### ¿PARA QUÉ SE ACTIVA ESTA ASAMBLEA DE GIPUZKOA?

La Diputación Foral de Gipuzkoa impulsa esta asamblea, con el apoyo de todos los grupos políticos con representación en las Juntas Generales, y espera obtener una serie de recomendaciones por parte de la Asamblea Ciudadana, que sirvan para orientar las actuaciones en materia de política agraria en los próximos años. La Diputación se compromete a responder por escrito y en diferentes tiempos a cada una de las recomendaciones que realice la Asamblea: dos meses, seis meses y dieciocho meses después de la publicación de las recomendaciones.

### ¿QUÉ SUPONE FORMAR PARTE DE ESTA ASAMBLEA?

La participación supone la posibilidad de conocer de primera mano la situación del sector agrario y de la crisis climática en Gipuzkoa y deliberar con los demás miembros de la Asamblea. En caso de que participes en la Asamblea, serás uno de los protagonistas que, con el asesoramiento de un grupo de personas expertas, **elabore un conjunto de recomendaciones a la Diputación Foral de Gipuzkoa sobre cómo abordar esta problemática planteada**. Para ello, tienes la responsabilidad de asistir a todas las sesiones programadas y participar de este modo en la deliberación.

## ¿CÓMO HA LLEGADO ESTA CARTA A MI DOMICILIO?

No todas las personas residentes en Gipuzkoa han recibido esta carta. De entre todas las viviendas del catastro provincial, la Diputación ha realizado un sorteo seleccionando 15.000 direcciones. La dirección de tu domicilio es una de ellas.

## ¿QUIÉN PUEDE PARTICIPAR EN LA ASAMBLEA CIUDADANA DE GIPUZKOA?

Cualquier persona mayor de 16 años residente en el domicilio al cual llegue esta carta puede presentarse voluntaria respondiendo a un cuestionario. Con el conjunto de todas las personas que cumplimenten el cuestionario se realizará un segundo sorteo. La organización independiente y sin ánimo de lucro Sortition Foundation realizará este sorteo que se combina con una estratificación y así se generará una muestra demográficamente y socialmente descriptiva de la población de Gipuzkoa.

El resultado de este segundo sorteo dará como resultado una selección de 32 miembros titulares y 32 suplentes. Estas personas pasarán a ser los integrantes voluntarios de la Asamblea Ciudadana y serán notificados mediante correo electrónico o teléfono.

## ¿QUIÉN SUPERVISARÁ LA ASAMBLEA CIUDADANA?

Existe un Comité de Seguimiento para supervisar el proceso deliberativo de la Asamblea. El Comité de Seguimiento está formado por representantes de los grupos parlamentarios de las Juntas generales y de los principales grupos de interés relacionados con la pregunta. Existe también un Comité de Contenidos encargado de generar la información que se pondrá a tu disposición. El diseño deliberativo y el sorteo cívico se fundamentan en una metodología validada por la Organización para la Cooperación y el Desarrollo Económicos (OCDE) y son supervisados por la organización independiente Deliberativa.

Si quieres conocer la composición del Comité de Seguimiento y Comité de Contenidos, puedes hacerlo en los siguientes enlaces:



<https://www.gipuzkoa.eus/web/herritarrenbatzarra/comiteseguimiento>



<https://www.gipuzkoa.eus/web/herritarrenbatzarra/comitecontenidos>

## ¿QUÉ REQUISITOS TENGO QUE CUMPLIR PARA FORMAR PARTE?

Haber recibido esta carta, que es una invitación para cualquiera de las personas que viven en tu domicilio.

Ten en cuenta que, sin embargo, sólo puede apuntarse una persona por cada domicilio y se debe cumplir con los siguientes requisitos:

- Tener como mínimo 16 años y ser residente en Gipuzkoa.
- No ser un cargo político a nivel municipal, provincial, autonómico, estatal o europeo.

## ¿QUÉ TENDRÉ QUE HACER?

Las reuniones de la Asamblea Ciudadana serán facilitadas y dinamizadas por profesionales con experiencia en este tipo de procesos.

No tienes que ser una persona experta, ni tener conocimiento especial sobre la temática planteada. Tu perspectiva y experiencia como residente de Gipuzkoa es lo más importante.

No se te pedirá vestir de manera especial para asistir a las sesiones, ni tendrás que hablar en público si no quieres hacerlo.

Si tienes dificultades para poder participar (tener diversidad funcional o de accesibilidad física, tener personas menores o mayores a tu cargo, no hablar o entender ninguna de las dos lenguas oficiales de Gipuzkoa, o cualquier otra dificultad que considere limitante para tu participación), te rogamos nos lo comuniquemos para que estudiemos la posibilidad de solventar esta dificultad y, en la medida de lo posible, hacer que tu participación sea efectiva.

## ¿QUÉ LENGUAS SE UTILIZARÁN EN LA ASAMBLEA?

Las sesiones de la Asamblea se celebrarán siguiendo la política lingüística de la Diputación Foral de Gipuzkoa. Se velará por el cumplimiento de la normativa de uso de las dos lenguas oficiales, fomentando el uso social del euskera y tomando las medidas necesarias para garantizar la comprensión de todas las personas participantes en la Asamblea. Después del segundo sorteo, y junto a la confirmación de participación, se recogerá información sobre los conocimientos lingüísticos de los miembros de la Asamblea y, en caso de que no entiendas o hables ni el euskera ni el español, trataremos de facilitarte un sistema de traducción, acorde a tus necesidades específicas.



## **SI ACEPTO, ¿RECIBIRÉ COMPENSACIÓN ECONÓMICA POR MI PARTICIPACIÓN?**

Ser parte de la Asamblea Ciudadana no es obligatorio sino voluntario. Una vez asumes tu compromiso como miembro de la Asamblea, te comprometes a asistir y participar en todas las sesiones. A cambio, se te compensará con una gratificación total de 444 euros, siempre que ASISTAS A TODAS LAS SESIONES. Adicionalmente a esta gratificación, tendrás incluidos los gastos de desplazamiento y las comidas durante las diferentes sesiones.

## **¿CUÁNDO Y CÓMO PUEDO ACEPTAR SER MIEMBRO DE LA ASAMBLEA?**

**El plazo para registrarse finaliza el día 17 de octubre (incluido).** Si tu respuesta es un sí, y quieres ser una persona voluntaria y miembro de la Asamblea, **existen dos formas rápidas y simples para registrarse:**

1) Rellenar el formulario de inscripción en la página web



<https://www.gipuzkoa.eus/es/web/herritarrenbatzarra/me-toco-loteria>

2) Registrarse telefónicamente llamando al siguiente número de teléfono 943 426920 en horario de 9:00 a 18:00

## **SI NO ESTOY SEGURO O SEGURA DE PODER PARTICIPAR EN LAS 4 SESIONES PREVISTAS, ¿PUEDO APUNTARME?**

Es muy importante comprometerse a formar parte y participar en todas las reuniones previstas. Por eso te pedimos que confirmes tu disponibilidad para todas las sesiones previamente a tu aceptación como miembro de la Asamblea.

### **CALENDARIO DE SESIONES:**

#### **Primera sesión:**

- Viernes 4 de noviembre, EN UNA LOCALIDAD DE GIPUZKOA, de 18:00 a 21:00
- Sábado 5 de noviembre, EN UNA LOCALIDAD DE GIPUZKOA, de 10:00 a 18:00

#### **Segunda sesión:**

- Viernes 25 de noviembre en DONOSTIA de 18:00 a 21:00
- Sábado 26 de noviembre en DONOSTIA de 10:00 a 18:00

#### **Tercera sesión:**

- Viernes 16 de diciembre en BERGARA de 18:00 a 21:00
- Sábado 17 de diciembre en BERGARA de 10:00 a 18:00

#### **Cuarta sesión:**

- Viernes 13 de enero en DONOSTIA de 18:00 a 21:00
- Sábado 14 de enero en DONOSTIA de 9:00 a 15:00

En caso de que NO puedas participar en estas cuatro sesiones, te agradeceríamos que animaras a participar en la Asamblea a una persona que viva en tu mismo domicilio y sea mayor de 16 años.

### **Sesión de Retorno:**

Adicionalmente a estas cuatro sesiones de deliberación de la Asamblea, el 15 de marzo de 2023 a las 18 horas se celebrará una sesión de retorno con la Diputación Foral de Gipuzkoa. En este encuentro, la Diputación Foral de Gipuzkoa dará su respuesta en relación a las recomendaciones realizadas por la Asamblea Ciudadana. En caso de que sea posible, esperamos contar con tu participación en esta última sesión.

### **PROTECCIÓN DE DATOS**

Podrás acceder al uso de la protección de tus datos a través del siguiente link:



<https://www.gipuzkoa.eus/web/herritarrenbatzarra/protecciondedatos>